

# noaua




## EHBILDUREN UDAL AURREKONTU PROPOSAMENAK EAJ-PNVREN BABESA JASOKO DU

Alderdi jeltzalearen hainbat proposamen onartu ditu udal gobernu taldeak / 05-07



NOAUA

**Euskaraldiaren  
edizio berria  
2025eko maiatzean  
ospatuko da / 11**



NOAUA

**Jende ugari  
gerturatu zen  
San Tomas  
azokara / 12**



NOAUA

**Olentzero eta Mari  
Domingiri harrera  
beroa egingo zaie  
asteburu honetan / 26**

**Txirikordako  
korapiloa askatu eta  
gero, martxan dira  
azken lanak / 08**



**Gabonetako gehigarria**



# GABONETARAKO BEREZITASUNAK!



## FRESKOAK:

Baserriko txahal azpizuna  
Entrekota  
Baserriko txahal txuleta  
Behi PREMIUM azpizuna  
Behi PREMIUM txuleta  
Antxume  
Arkume  
Txerrikume  
Iparraldeko hegaztiak  
Iberiko aukera zabalak...

## PRESTATUAK:

Etxeko frijitu aukera zabala  
Onddo eta mouse kutxara  
Marisko salpikoi kopa  
Txahal masai sakutxoak  
Arrai pastela  
Arrai zopa  
Xapoa saltsan  
Txahal masaiak saltsan  
Panetone Siziliarra...




ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81  
677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com

**Otar-Goxo**  
E l i k a g a i a k

# ARATZ

**zabaleta anaiak**  
1989tik



*Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da*



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia      erreserbak: 943 21 92 04

# Azterketa garairako ikasgela berria

Ikasteko leku bila bazabiltza, gune berri bat egokitu du Udalak DYAk Munalurran duen egoitzan.

Gune hau "behin-behineko ikasgela" gisa egokitu du eta aurrerantzean zabalik izango da urtarrilaren 31ra arte. As-telehenetik larunbatera zabalduko dute, 9:00-19:45 artean.

Udaletik jakinarazi dutenez, "urtean bitan irekitzea da asmoa", hain zuzen, ikasle askoren azterketa garaia izaten den "abendurartean eta

maiatz-ekainean". Espazio egokitu honek hamasei laguntzako lekua izango du.

**Sutegiko espazioa ez da egokia** "Sutegi liburutegian bada ikasteko espazioa, baina hainbat erabiltzailek ohartarazi izan dute ez dela egokia. Arazohoribideratzeko proiektua idatzia du udalak, eta bitan argitaratu du lizitazioa:



Espazio egokitu honek hamasei laguntzako lekua izango du.

bi aldietan, ordea, hutsik gelditu da. Ikasgela egokibaten beharrak bultzatuta, DYArekin hitz egin eta haiek

erabiltzen duten lokala urtean bitan behin-behineko ikasgela gisa erabiltzea adostu dute".

## Garbigune mugikorra, Kalezarrera

Abenduaren 21etik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarraren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Abenduaren 28an osteguna, garbigune mugikorra Usurbilgo kaxkora eramango dute.

## Manu Urbietaren erakusketa Artzabalén

Usurbilen ezaguna dugun zaraustar sortzaileak ikusgai izango ditu bere artelan berriak Artzabalén. Datorren urte hasierara arte egongo dira bere lanak bertan eskegita.

"Nekez" izena du Gure Pakea elkartearen egoitzako jatetxean bisita ditzakezuen bere bildumak.

## Datorren astekaria, urtarrilaren 12an

Eskuartearen duzuen urteko azken aldizkaria duzue. Datorrena, urtarrilaren 12an argitaratuko dugu. Ordurako oharrik baldin baduzue hilaren 8a baino lehen helarazi ohiko bideotatik:

- erredakzioa@noaua.eus
- 943 360 321
- Bordaberri 3, behea.

## Hurrengo odol-ematea, urtarrilaren 15ean

Odola emateko hurrengo saioa urtarrilaren 15ean izango da. 16:30-20:30 artean, Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela aurretik 943 007 884 telefono zenbakira.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOTXEA

## Txorroskiloarena

**A**urrekoan, udalak **U**surbilen antolatutako saio batean egoteko aukera izan nuen eta saio gidari finek, talde handi samar bati, bidaiaria egiteko proposamena egin ziguten. Helmuga: 2050. urteko **U**surbil. Bidaiaren nolakotasuna: trantsizio ekosozialaren baitakoa. Ariketa: gure herria birpentsatu eta bidea bera irudikatzea, eskura jarri zizkiguten material eta tresnekin collage bat osatuaz.

Gustura aritu ginen taldeka, bakoitza bere irudimenerantz, eta une oro soinean daramagun bizitzaren motxilara joaz. Hantxe eraiki genuen elkarrekin, irudi eder bezain konplexu bat. Hankak lurrean izanda, baina lanaketak eskatzen zuen adinako abstrakzio eta jostatzeko gogoaz.

Horretan ari ginela, partaide batek txorroskilo bat hartu eta zergatik aukeratu zuen azaldu zigun. Oinarritzko tresna bat zela zioen, arkatzarekin erabiltzen zena, baina bolalumentzat balio ez zuena. Hasiara baterako beharrezkoa. Bai eta bidearen higatze eta kamusteari aurre egin eta ostera ekiteko aukera eskaintzen duena ere.

Eta halaxe, beste taldekide batek, tresna simple bezain beharrezko honen inguruko pasarte bat kontatu zuen. Antza, Espaziora bidaiari hasi ziren garaian, tripulazioari espazio-ontzian idazteko tresna aproposena aukeratzeko aritu omen ziren, alde batetik sobietarrak eta



"Partaide batek txorroskilo bat hartu eta zergatik aukeratu zuen azaldu zigun".

bestetik estatu batuarak. Eta dirudienez, Nasakoei, diru kantitate handi bat bideratu omen zuten, espazioan grabitateari aurre eginaz bere funtzioa aproposa beteko zuen bolalumenaren diseinura. Eta kontrara, sobietarrek, arkatza eta txorroskiloa aukeratu omen zituzten, euren sinpletasunean.

Istorioak grazia egin zigun bertakoei. Eta bide batez, oso baliagarria egin zait testu hau idazten hasteko. Nahiz eta hasi aurretik egin dudana ikerketa azkar eta arin baten bitartez, kontakizuna zalan-

**"HURRENGO URTEARI BEGIRA JARRIA NAIZ. BESTE BEHIN, BALIATU, ATZEAN UTZI EDO PROBATU NAHI DITUDANAK IRUDIKATZEN"**

tzan jartzeko argudio nahi-koak topatu ditudan. Baina zuen baimenarekin, amu txiki bat uzten dizuet hemen, gaiaren inguruan zuen kaxa sakondu dezazuen. Eta nik, batere lotsarik gabe, eskainitako irakaspenari helduko diot, lerrook idazten jarraitzeko.

Izan ere, abenduarekin batera, hurrengo urteari begira jarria naiz. Beste behin, baliatu, atzean utzi edo probatu nahi ditudanak irudikatzen. Eta ondorioztatu dudana lehena, ostera albo batera utzita izan ditudan gauzetara itzultzeko beharra sentitzen dudala izan da. Oinarritzora, ximpleegiak diruditen arren, ezagutzen eta funtzionatzen dutela dakidan ohituretar. Laguntza eskatu, mugak jarri eta ondoan izan nahi ditudan leku eta pertsonetara. Baina helmugarantzko bidean, urratsak ematen jarraitzeko asmoa galdu gabe. Beharrezko itzuliak emanda, baina aurrera.

## 15 langabetu gutxiago azaroan

2023ko irailean lanik gabeko 195 herrikide zeudela jakinarazi zuen Estatuko Enplegu Zerbitzuak. Hamabost gehiago izan ziren urrian, guztira 210. Azaroan hamabost langabetu gutxiago zenbatu dituzte, 195 guztira. Aldez aurretik, apirilean erregistratu zen langabetu kopuru baxuagoa, 193 langabetu.

Udalerri honetan erregistraturiko kontratu kopurua, aldiz, hazi egin da. Gizonezko gehiago kontratatu ziren (156) emakumezkoak baino (148).

## Hildako bat N634 errepidean

Bigarren hildakoa amaitzear dugun urte honetan, N634 errepidean. Iragan abenduaren 11n izan zen 76 urteko gizonetza, gaueko 23:00ak aldera. Ertzaintzaren arabera, "herri-tar batek larrialdi-zerbitzuei jakinarazi zien pertsona bat galtzadan etzanda zegoela, eta, ondoren, bi ibilgailuk harri-patu zutela". Berlaratu ziren larrialdi zerbitzuek ez zuten ezer egiterik izan, "heriotza egiaztatu" baino ez.

## Sektore publikoan deitutako grebak eragina izan zuen Usurbilen

Urriaren 25ean gertatu bezala, euskal gehiengo sindikalak abenduaren 19rako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sektore publikoan deitu zuen grebak eragina izan zuen Usurbilen.

Usurbilgo Udaleko langileek grebarekin bat egitea erabaki zuten batzar batean. Garbitariak ere greba deialdiarekin bat egitea erabaki zuenez, asteartean ez zen hondakin bilketa zerbitzurik izan.

# EAJ-PNVk 2024ko udal aurrekontuen alde bozkatuko du

Alderdi jeltzaleak udal gobernuarekin elkarlanean jarduteko duen prestasuna nabarmendu nahi du, "usurbildarren bizi-kalitatea eta udalerraren garapen iraunkorra nabarmen hobetzeko".

Udal gobernuaren aurrekontu proposamena hobetzeko asmoz, EAJ-PNVk zazpi egitasmo luzatu zituela iragarri zuen abenduaren 12an. Proposamen hauek "funtsezko arloak jorratzen dituzte, hala nola hirigintza-hobekuntzak eta azpiegiturak, ekintzailtza bultzatzea eta kirol-ekipamenduak indartzea", EAJtik prentsa-ohar bidez azaldu zuten.

Sei egun beranduago, udal aurrekontuen aldeko bozka emango zutela azaldu zuten beste ohar baten bidez. EH Bilduk proposamen horietako lau onartu dizkionez, aurrekontuen alde agertuko da asteazken honetako plenoan. EAJ-PNVk dioten moduan, "akordio honek agerian uzten du bi aldeek elkarrekin lan egin nahi dugula Usurbilen eta usurbildarren mesedetan".

## EAJ-PNVren zazpi proposamenak: Kiroldegiko materiala

Usurbilgo EAJ-PNVren proposamenetako bat udal kiroldegiko gimnasio gelako makinak berritzeari buruzkoa zen. "Aldez aurretik zenbait berrikuntza egin diren arren, gaur egungo makina asko zaharkitutzat jotzen dira", dio alderdi jeltzaleak. "Proposamena-

ren helburua da makina ergonomikoagoak eta seguruagoak erostea, 30.000 euroko inbertsioa eginez. Horri esker, erabiltzaileek ingurune egokiagoa eta seguruagoa izango dute entrenamendu fisiko egiteko".

## Ekintzailtza-tailerrak

'Usurbil Zabalik' ekimenaren baitan, Usurbilgo EAJ-PNVk ekintzailtza-tailerrak sortzea proposatu du. Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuez gain, hitzaldiak eta ekintzailtza-saioak antolatzea planteatzen da, "usurbildarren artean izpiritu ekintzailea sustatzeko". Proposamen honen helburua ez da soilik enplegua eta aberastasuna sortzea Usurbilen, "baizik eta udalerrian erabiltzen ez diren lokalak zabaltzea jarduera ekonomiko berriekin. Ekimen honetako adituen gastuak eta materialak ordaintzeko 5.000 euro bideratzea proposatzen da".

## Segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzea

San Inazio kaletik Aitzearra kaleraino, Zelai Aunditik igarota, oinezkoentzako ibilbide seguru bat eraikitzeak aukera emango duen proiektua idazteko 7.000 euroko inbertsioa egitea proposatu du EAJk. "Horrek berekin dakar birlibegune batean espaloiak



EAJ-PNVren proposamenen asmoa da "segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzea herritarrei joan-etorrietan".

handitzea eta zebra bide berri bat prestatzea, bai eta Autobus Geltokitik Atxegarako bide-ertzak egokitzea ere. Asmoa da segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzea herritarrei joan-etorrietan". Era berean, oinezkoentzako ibilbide seguru hori eraikitzeak, 48.000 euroko inbertsioa egitea proposatu du Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak.

## Artzabal pilotalekua estaltzea

Artzabal pilotalekua estaltzeko proiektua idazteko, 25.000 euroko partida gordetzea eskatu du alderdi jeltzaleak.

## Santuenea eta San Esteban arteko bidea berritzea

Auzoak ere badira jeltzaleen kezka-iturri. Santuenetik San Estebanerako bidea egiteko proiektua eguneratzea proposatu dute, 3.500 euroko inbertsioarekin.

Abenduaren 12an, EAJ-PNVk prentsara igorri zuen idatzian elkarlanerako borondatea agerikoa zen. "Usurbilgo EAJ-PNVk udal gobernuarekin elkarlanean jarduteko duen prestasuna nabarmendu du, usurbildarren bizi-kalitatea eta udalerraren garapen iraunkorra nabarmen hobetzeko. Proposamen hauek Usurbilekin duen konpromisoa islatzen

dute eta udal gobernuak kontuan hartzea eta 2024ko Usurbilgo aurrekontuak ahalik eta adostasun handienarekin onartu ahal izatea espero du talde jeltzaleak".

## Udal gobernuak onarturiko lau proposamenak

Kiroldegiko gimnasio-areto-ko makinak berritzea da EH Bilduk onartu duen puntuetako bat. Horrekin batera, 'Usurbil Zabalik' ekimenaren barruan, ekintzailtza-tailerrak egingo dira, tokiko ekonomia sustatzeko eta erabiltzen ez diren lokalak biziberritzeko, jarduera ekonomiko berrien bidez.

Era berean, Santuenetik San Estebanerako bidea egiteko proiektua eguneratzearekin bat dator EH Bildu.

Lau proposamenetan akordioa lortu den arren, EAJ-PNVk aurkeztutako hiru proposamen ez dira udal aurrekontuetan sartu. Jeltzaleek adierazi dute bi proiektu horiek gauzatzeko lanean jarraituko dutela, funtsezkotzat jotzen baitituzte: "lehen, herritarren eta, bereziki, gazteen segurtasuna bermatzeko, eta, bigarrena, herriari eta elkarteei espazio estali berri bat emateko, beren kultura eta kirol jarduera bultzatzeko".

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867

**Kima**  
MASAJE LEKUA  
• KIROL MASAJEA  
• MASAJE TERAPEUTIKOA  
• KOLONAREN HIDROTERAPIA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**ADA**  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33



2024ko udal aurrekontuen proposamena aurkezteko gobernu taldeak iragan astean eginiko agerraldiko irudia. NOAUA!

# 2024ko aurrekontuak, bozketara

Herri misioetan sakondu eta adostasunez osaturiko udal aurrekontu proposamena aurkeztu du udal gobernu taldeak 2024. urterako. Asteazken honetan egitekoa duten urteko azken ezohiko osoko bilkuran hasieraz onartu asmo dituzte.

Herri misioetan eta auzoen eraberritzean sakontzen duten udal aurrekontu proposamena aurkeztu die gobernu taldeak asteotan Usurbilgo herri eta auzoetako bizilagunei eta oposizio taldeei. Hala jakinarazi du udal gobernu taldeak. "Azaroan aurkeztu zuen gobernu taldeak aurrekontu-proposamena, eta azken asteotan auzo batzarretan aurkezten aritu gara, eta oposizioarekin ere eskuz esku lanean aritu gara, eta, ondorioz, batean eta bestean egindako ekarpenak barneratu ditugu".

## "Oso aurrekontu altua"

Guztira 13,1 milioi euro pasatxo izango ditu Usurbilek eskuartean dituen hurrengo urteko egitasmoentzat, iazkoaren antzekoa; 2023rako 13.168.200 euro izan ditu uda-

lerri honek. Halere, azken hamarkadako bilakaera kontuan izanda, "oso aurrekontu altua izaten jarraitzen du". Urte berriko udal aurrekontuok, gobernu taldetik iragarri dutenez, "bost erronka handiri erantzuteko baliaitu nahi ditugu".

## "Ez dugu kontrako bozkarik espero"

Abenduaren 13an Antolake-ta Batzordean diktaminatu ostean, asteazken honetarako deitua duten 2023ko azken ezohiko osoko bilkuran hasieraz onartzekoak zituzten, "adostasunaren aurrekontuak" izendatu dituztenak. Azaldu dutenez, "oposiziotik jaso ditugun emendakin gehienak barneratu ditugu". Besteak beste, honako hauek; "espazio pu-

blikoa hobetzeko partida handitu da (18.000 euro gehiago), kirol sailera 40.000 euro gehiago bideratu dira eta tokiko garapena eta merkataritza indartzeko partidak handitu dira. Emendakinok, gainera, aho batez onartu dituzte udal talde politikoguztiek". Horregatik, EHBildutik aurreikusi dutenez, "ez dugu, beraz, kontrako bozkarik espero abenduaren 20an".

## UDAL GOBERNU TALDEA: "EZ DUGU KONTRAKO BOZKARIK ESPERO ABENDUAREN 20AN"

## Diru-sarreraren handitzea

Ohiko finantziazio iturrietatik diru kopuru gehiago jasoko duela aurreikusi du gobernu taldeak. Iaz baino 389.183 euro gehiago Foru Funtsetik, 5.422.827 euro guztira; 283.509,36 euro gehiago zuzeneko zergetan, 3.363.412,36 euro. "Igoera esanguratsuenak plusbalian eta Jarduera Ekonomikoaren Zergan aurreikusten ditugu". %2,9ko igoe-rokorra aplikatuko dieten urte berriko tasa, zerga eta prezio publikoetatik ere gehiago jasoko du Udalak. Izan ere, orain arte ez bezala, "arazketa-gatik ere kobratuko dugu (%8 gehiago), eta horrek 172.789,08 euro gehiago biltzea eragingo du".

## Hainbat dirulaguntza

Horrez gain, hainbat dirulaguntza ere jasoko ditu Udalak. "Herriko ur sistema hobetzeko eta digitalizatzeko, Europako funtsetatik 225.000 euro lortu ditugu, eta zaintza eredu berriaren inplementaziorako dirulaguntza esanguratsua lortuko dugu. Beraz, 300.000 euro inguruko dirulaguntzak jasoko ditugu, eta baditugu prestatuak beste hainbat proiektu ere, Europako funtsetatik etor daitezkeen deialdi-talara aurkezteko".

Gainerakoan, "2024ean ez dugu aparteko diru-sarrera "berezirik" espero". Gobernu taldetik gogorarazi dutenez, hain zuzen, "Zapategi eremu-ko (Michelin alboko partzela) garapenetik, hirigintza aprobetxamendu gisa, 861.189 euro aurreikusi genituen, eta horrek eragin zuen diru-sarrek gora egitea, oso modu nabarmean".

Honax Usurbilgo udal gobernu taldetik helarazitako zenbakitan, urte berrirako osatu duten udal aurrekontu proposamenaren berri:

## 2024rako udal aurrekontuak

**Guztira:** 13.117.569,45 euro.



## Bost erronka

### Trantsizio ekosoziala

- Herriko argiteria berritzea: 90.000 euro.
- Plaka fotovoltaikoen instalakuntza: 40.000 euro.
- Usurbil 0.0 hondakinen kudeaketa osasungarria eta jasangarria: 23.000 euro.
- Kalezarko autobus geltoki berria eta Txokoaldeko zubia.
- 2023ko aurrekontuetako partidak, exekutatzeko ari direnak: berriki abiarazi duten Zumartegiko ibai ertza lehengoratzeko eta herritarrek erriora gerturatzeko obra.
- Energia eta klima aldaketarako teknikaria. Besteak beste, herritarrentzako aholkularitza zerbitzua eskainiko du.

### 650 Usurbil Bizi proiektua

- Zumetaren frontoi atzeko muralaren 50. urtemugako ekitaldien segida.
- Ez Dok Amairuren transmisiorako eta haren erakusleihoa izango den parke "inklusiboa, ludikoa eta dinamikoa" gauzatzeko proiektua Aranerrekan, "Usurbil euskal kulturaren mapan modu garrantzitsuan kokatzea" helburu izango duena.
- Sagardoaren Usurbil eta Erriorearen Usurbil garatzen hasteko proiektuak eta bisita berriak.

### Zaintza eredu berriaren inplementazioa

- Hobarien sistemari eustea, "gizarte babesean eta herritar guztien aukera berdintasunean sakontzeko".
- Dirulaguntza lerroak; hala nola, alokairua ordaintzeko edota Eskola Kirolerako.
- "Pertsona bat, zaintza plan bat" helburu duen zaintza ekosistema publiko-komunitarioa eratzen segitzeko eredu berriaren inplementazioa: 200.000 euro.
- Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren irekiera.



Abenduaren 20ko ezohiko osoko bilkuran bozkatzekoak dituzte 2024ko udal aurrekontuak.

### Gobernantza eredu berria

- Udalaren digitalizazioa.
- Misioen baitako udal gobernantza eraikitzeke parte-hartze prozesuaren abiatzea.

### Herri/auzoen eraberritzea

#### Kalezar:

- Kaxkoa oineztu eta autoen joan-etorria erregulatzeko sistema: 50.000 euro.
- Autobus geltoki berria eta igogailua: 480.000 euro.
- Haur Eskolako aldapa txukuntzea: 175.000 euro.
- Pelaioenaren irekiera.

#### Aginaga:

- Elutxeko berdeguneko altzariak eta Eliza Zaharreko teilatuaren konponketa: 40.000 euro.
- Obrak: semaforoa, Eliza Zaharra, Kaxkoko parkea.

#### Santuenea:

- Auzoko sarreraren berrantolaketa, "irailean onartu-

## PROIEKTUETAKO BAT: "EZ DOK AMAIRUREN TRANSMISORAKO PARKE INKLUSIBO ETA DINAMIKOA"

tako kreditu aldaketa baten bidez": 100.000 euro.

#### Zubieta:

- 20.000 euroko partida zertara bideratu adosten ari da Udala Herri Batzarrarekin.
- Zubieta-Santuenea bidegorria gauzatzeko lanketa: lurjabeekin hitzarmenak lotzea, "ahal dela, 2025ean gauzatzen hasteko".

#### Etxealdia:

- Irisgarritasun Planaren 2. fasea gauzatzea (obrak urte hasieran esleituko dituzte): 350.000 euro.

#### Atxegalde:

- Auzotarrekin lankidetzak bidea zabaltzen: 15.000 euro.

#### Txokoalde:

- Zubia berritzeko lanak: 300.000 euro (udaletik), 1.400.000 euroko aurrekontua.

## BESTE EGITASMO BAT: "ZUBIETA-SANTUENEA BIDEGORRIA GAUZATZEKO LANKETA"

### Legealdiko Planean aurreikusitako proiektuak:

- Lurralde lantaldearen indartzea, nagusiki etxebizitzetako erroketi erantzuteko: Txirikordaren irekiera, etxebizitza hutsen diagnosis haiek "merkatu publikora ateratzea ahalegintzeko", HAPOaren behin-behineko onarpena,.
- Gazteria-kultura, Elkargunea definitzeko parte hartze-prozesua: 18.000 euro.
- Kirolaren plan estrategikoaren garapen eta proiektu gehiago: 30.000 euro.
- Euskararen erabilera indartu eta harrera linguistikoa errefortzatuak: 30.000 euro.
- Nekazaritzaren sustapena: 10.000 euro.
- Emakumeen Etxeko programazioa eta bestelako programak: 40.000 euro.

### Onarpen prozesua

- Azaroan zehar: Usurbilgo auzo eta herrietan eta oposizioko taldeei udal aurrekontu proposamenaren aurkezpena, ekarpen bilketa.
- Abenduak 20: 2024ko udal aurrekontuen hasierako onarpenaren bozketa.



Jasandako kalteagatik kalteordainak eskatuko dizkio Udalak Muriasi.



Gabonen ondoren, Udalak etxebizitza kontratuak sinatzen hasi nahiko luke.

# Orain bai, Txirikordako lanak amaitze bidean dira

Udalak Muriasekin zuen Txirikordako lanen exekuzio kontratua behin betiko suntsitua geratu dela berri eman zuten azaroaren 29ko osoko bilkuran. Horrek Ugartondoko eraikinaren lanak amaitzea ahalbidetuko dio Udalari.

Nobedade garrantzitsuak Txirikorda egitasmoari dagokionean. Dakizuenez, lanen %99,99a amaitua izan arren, belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioko lanak amaitu ezinik zen Udala eta hala salatu zuen iragan urria hasieran egindako ezohiko osoko bilkuran. Udalak eskuak lotuak zituelako minduta agertu zen udal gobernu taldea Ugartondoko eraikinarekin gertatzen ari zena ikusita. "Kontratu baten biktimak gara", azaldu zuen argiki Agurtzane Solaberrietak.

Txirikordari lotutako exekuzio obra kontratuari buruz ari zen. Udalbatzak aho batez kontratu hau suntsitzea erabaki zuen, Ugartondon kokaturiko belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa eraikitzeke lanez arduratu behar zuen Construcciones Muriás S.A. enpresak bere gain hartuak zituen konpromisoak ez zituelako bete, eta ez behin, behin baino gehiagotan, udal gobernu taldetik aditzera eman zuten.

Udalak obragatik zegokiona ordaindu arren, diru kopuru hau "ez zen iristen behar zen enpresetara". Ondorioz, langileak ez ziren zegozkien ordain-sariak jasotzen ari. Enpresak beste hainbat obretan zituen zorrak tarteko, langileei ordaindu ezinik zebilen. Udalak ordaindu bai, baina dirua ordea "ez zen iristen behar zen" tokira. Langileak ere urte hasieran lan egiteari uko egiten hasi ziren.

Orduetik, Udalak enpresarekin hainbat bilkura egin eta egoera ez zela bideratzen ikusita, urria hasierako ezohiko osoko bilkuran udalbatzak Udalak Muriasekin hitzartua zuen obra kontratua suntsitzeari aho bateko onespina eman zion. Kontratu hau suntsitu arte, Udalak Txirikordako lanak ezin zituela amaitu ohartarazi zuen halere.

**"Berrito geureganatu dugu Txirikorda"**  
Hemen azaroko osoko bilkuran heldu ziren nobedadeak. Onspen haren ostean alegazio epea zabaldu zen. Tarte horretan halakorik ez balego, kontratu suntsipena behin betikotzat joko zuela iragarri zuen Udalak eta hau da gertatu dena. Iragan azaroaren 10az geroztik kontratu eternaldi hori behin betikoa dela jakinarazi zuen

udal gobernu taldeak azken osoko bilkuran. Kontratu etenda eta enpresa horrekin orain arteko obrak likidatu ostean, pozarren adierazi zuten udal gobernu taldetik, "berriro geureganatu dugu Txirikorda".

Horrek Txirikordako lanak amaitzea ahalbidetuko dio Udalari. Dagoeneko, falta diren lanak hilabeteko epean amaitzeko enpresa kontratatua dute eta obren atzerapenak eta haren baitan gertatu den guztiagatik edota kontratu suntsipenagatik udalak eta herri honek jasandako kalteagatik kalteordainak eskatuko dizkiola Muriás enpresari, iragarri dute udal gobernu taldetik. Gaiotan espezializaturiko abokatu talde baten aholkularitza zerbitzua jasoko du Udalak zereginotarako.

Urrats hauekin guztiekin bat egin zuten udal talde guztiek

**"OTSAILERAKO ESPERO DUTE TXIRIKORDAN BIZITZEN HASTEAN"**

azaroko osoko bilkuran, aho batez onartu zituzten.

## Otsailerako ireki nahian

Txirikordarekin gertatu dena ikusita, zailtzat jotzen du udal gobernu taldeak oraintxe belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa ireki eta bizilagunak bertara joateko datak zehaztea. Baina balizko epe batzuk finkatu zituen azaroaren 29ko osoko bilkuran. Lehenbizi, "gabonen ostean, etxebizitza kontratuak sinatzen hasia nahi genuke", adierazi zuen alkateak. Horrekin batera, Ugartondoko eraikinean biziko direnei etxea ekipatzen hasteko aukera ematea nahi lukete urte hasieran, eta gero, "otsaila hasieran jendea bertan bizitzen hasia nahi genuke". Bistan denez, orain bai, Txirikordaren eraikitze lanak azken txanpan dira.

## Langile publikoen urteko bigarren soldata igoera onartu dute

Langile publikoen urteko bigarren soldata igoera onartu zuten udalbatzak aho batez, azaroaren 29ko osoko bilkuran.

Udaberrian langile publikoen urteko lehenengo soldata igoera onartu zuten, %2,5ekoa. %0,5ekoa azaroaren 29ko plenoan. Udal gobernu taldetik iragarri dutenez, hirugarren igoera bat ere izango da datorren urte hasieran.





Udal gobernu taldeak eta PSE-EEK adierazpen bana aurkeztu zuten.

## Konpromiso bikoitza, Euskararen Eguneko adierazpenean

Euskararen Egunerako adierazpena onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz azaroaren 29ko osoko bilkuran. PSE-EEK osoko zuzenketa aurkeztu zuen baina ez zen onartua izan.

Igandez egokitu da aurten, abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna. Euskararen aurkako oldarraldia hizpide izan den urte honetan, egun horri begirako adierazpena aurkeztu zuen udal gobernu taldeak azaroaren 29ko osoko bilkuran. Usurbilgo udalerria kide duen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearena (UEMA) da testua.

Bertan, hain zuzen, azken aldian euskarak jasandako erasoak gogorarazten dira. "Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jarzteraino".

Egoera horren aurrean, adierazpenak dioenez, "euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek". Horren harira bi konpromiso ezagutarazi nahi ditu adierazpenak. "Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan

eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa".

Adierazpena babestu zuten EHBildu eta EAJ udal taldeetako ordezkariak. PSE-EEK aurka agertu eta osoko zuzenketa aurkeztu zuen.

Osoko zuzenketa PSE-EEK soilik babestu zuen; EHBildu eta EAJ aurka agertu ziren. Lekuz kanpokotzat jo zuen talde sozialistaren testua Oxkar Santamaria EHBilduren zinegotziak. Desegokitzat jo zuen aurtengoan halako testu bat proposatzea, euskararen aurkako oldarraldi betean garen honetan. Ildo beretik mintzatu zen, Ivan Iriondo jeltzalea. Harridura agertu zuen

**BI ADIERAZPENAK NOAUA.EUS WEB ORRIALDEAN IRAKURRI DAITEZKE**

PSEk aurkezturiko adierazpenarekiko. Ez du uste "unea denik hori aldarrikatzeko. Aurten izandako gorabeherengatik" aproposagotzat jo zuen EHBilduk aurkeztu zuen UEMaren adierazpena.

PSEtik Petra Romerok erantzun zuen esanez, udal gobernu taldetik aurkezturiko testuko "adierazpen batzuekin" desados dagoela eta "aukera galdu dela" adierazpen adostu bat onartzeko. Hitz hauei erantzun nahi izan zion EHBildutik alkate Agurtzane Solaberrietak. Bere esanetan, "aukera galdu bat izan da euskaraz funtzionatzen duen Udalaren alde egiteko". Tristura agertu zuen PSEk hartutako erabakiarekiko.

Bi mozioak noaia.eus web orrialdean irakurri ditzakezue, abenduaren 3an zabaldu genuen artikuluan.

### Aterpe klimatikoak sortzea eta gune gris birnaturalizazioa

Udalerriko azpiegitura berdeari buruzko azterlan bat egitea eta udalerriko gune grisnetan birnaturalizazioa sustatzea; tenperatura optimoa bermatuko duten eta bero-boladen garaian aterpe klimatiko gisa erabil daitezkeen kanpoko zein barruko espazioak kokatzea; hirien berdatzea sustatzea, zuhaitzik edo eguzki-babesik ez dagoen lekuetan eta eremu gris gehiegi dauden lekuetan, gure hiriak klima-aldaketara eta gure herritarren osasuna babestera egokitzeko neurri gisa; azkenik, Usurbilgo lorategi eta baratze pribatuetan ingurumen- eta iraunkortasun-jardunbide egokien kontzientziazio-kanpainak bultzatzea.

Eskaerok biltzen dituen mozioa aurkeztu zuen Usurbilgo Udaleko talde sozialistak. Gehiengo osoz onartu zuten testua PSE-EE eta EHBilduko ordezkarien aldeko botoekin; EAJ abstenitu egin zen.

### Hirigintza alorreko hitzarmena adostu dute Udalak eta Urbilek

Urbil inguruko urbanizazio-ko zaintza eta kontserbazio lanei lotutakoa da bi aldeek adostu duten hirigintza hitzarmena.

Urbilek 16.500 euroko ekarpena egingo dio Udalari. Ia 67.000 euroko konpromisoa hartua du bestalde, hurrengo urtebetean eremu horretako urbanizazioa hobetzeko: seinalez tapen berria, LED argiteria, ... Horrez gain, 2029ko ekainaren 30era arte merkatalgune inguruko kale garbiketa bere gain hartuko du Urbilek. Zerrendatuak dituzte Urbilek egin beharreko lanak. Udalak sei urte barru, konpromiso guztiak betetzean "Urbil inguruko urbanizazioa jasoko luke" eta modu horretan, aspaldidanik urrats hori emateko epea zehaztu dute. Lankidetzatza honi 90. hamarkada amaieran eman zioten hasiera, Urbil eraikitzeke proposamena Usurbilgo Udalera heldu zen garaian hain zuzen.

### Azaroaren 25ari lotutako adierazpena ahobatez onartua

Iragan azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeke Eguna lotuta, erakunde adierazpena onartu zuen Usurbilgo Udalak aho batez, azaroaren 29an egin zuten osoko bilkuran.

EUDELen adierazpena, azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeke Eguna buruzkoa izan zen hiru alderdien babesa jaso zuen adierazpena.

# Hiru jarduera berri, hiru merkataritza-lokal hutsetan

Onuradunek hutsik dauden hiru merkataritza-lokal biziberrituko dituzte eta Udalaren hainbat laguntza jasoko dituzte.

Usurbilgo Udalak dituen dirulaguntza lerro gehienek ebazpenak kaleratu zituen aspaldi, baina ez denak. Ekin-tzaileei zuzenduriko bi deialdi izaten ditu martxan urtero; bat, urtebetez Kabiene elkarlan gunean proiektuak garatzeko; bigarrena, herrian dauden merkataritza-lokal hutsak biziberritzera bideraturikoa. Egun eskaintzen ez diren zerbitzuekin lotutakoak edota itxear izan edo itxi berriak izan diren jardueren jarraipena bermatzen dutenak lehenetsi nahi izaten ditu Udalak. Bateko zein besteko deialdietara eskabideak aurkezteko aukera izan zuten interesdunek iragan irailaren 30era arte.

Epealdi hau igarota, azaroaren 24an Dirulaguntzen Batzorde Orokorra jasotako eskabideei lotutako ebazpe-

na onartu zuen. Hiru izango dira onuradunak; honenbestez, hiru jarduera berriek herrian hutsik dauden beste hainbeste merkataritza-lokal biziberrituko dituzte, itxita zeuden hiru guneguztira. Jarduera ekonomiko berriok eragindako hasierako gastuentzat nahiz lehen bi urteetako alokairu gastuei aurre egiteko Udalaren laguntza jasoko dute hiru jarduera ekonomiko berriok.

## Hasierako gastuei aurre egiteko laguntzak

Gogoan izan, negoziook abiarazteko hasierako gastuei aurre egiteko gehienez 5.500 euroko laguntza ematea onartua du Udalak dirulaguntza deialdi honen oinarrietan. Lokalaren alokairu edo erosketagastuetarako, lehen urtean



Udala bere ibilgailuak ordezkatzeko hasiko da, erregai fosilak alboratzen hasteko helburuarekin. Erabat elektrikoa den lehenengo autoa erosi berri du.

gehienez 400 euro hilean, bigarrenetan 300 euro gehienez jota. Informazio gehiago, abenduaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

## Auto elektrikoen aldeko apustua

Erabat elektrikoa den lehenengo autoa erosi du, brigadaren beharretarako. Guztira, 13 ibilgailu eta erregai fosilekin funtzionatzen duten 8 tresna ditu udalak, eta batzaz beste 14,75 urte dituzte.

Ibilgailu berriak erostekotan, udala legez behartuta dago erregai fosilak behar ez dituztenak erostera.

Usurbilgo Udalak datozen urteetan ibilgailuak berritze-ko inbertsioa egin beharko du, eta hori egin ahal izateko lagungarri izan daitezkeen dirulaguntzak eskuratzen saiatuko da: esaterako, Europako Batasunak baditu horretarako propio sortutako lerroak, Next funtsen bidez.

# Sutea Sutegi eta Aitzaga arteko pasabidean

Abenduaren 13an, ezezagunek sua eman zieten Sutegiko pasabidean pilatuta zeuden mahai zein aulkiei.

Belztua esnatu zen Sutegiko eraikinaren horma, kultur-etxe-ko eta Aitzaga arteko pasabideko sabaia, horma... abenduaren 13an. Sutea izan zen goizaldeko 1:30akaldera. Sutea kultur-etxe atariaren parean bilduta egoten den Aitzagako terrazako mahai eta aulkien

eremuan jazo zen. Itxura guztien arabera, norbaitek sua eman zien terrazako mahai eta aulkiei.

Eremua txukuntzeko lanei ekin zieten berehala, asmoa horixe baita; zonalde hau lehengoratzeko ahalik eta lasterren. Suteak terraza biltzen den eremua kaltetu zuen.



Suteak terrazako aulkia eta mahaiak biltzen dituen eremua kaltetu zuen.



Aurrerantzean, Euskaraldia ez da Korrikaren urte berean egokituko. Bi ekimenak "urtez urte txandakatzen" joango dira.

# Laugarren Euskaraldia, 2025eko maiatzean

2025eko maiatzean izango da euskara ahotan hartu eta hizkuntza ohituretan eragiten segitzea sustatuko duen Euskal Herri mailako hurrengo ariketa kolektiboa.

Udazkenetik udaberrira, eta urte bikoitietatik bakoitietara igaroko da aurrerantzean Euskaraldia. Hala jakinarazi dute sustatzaileek, berriki Donostian egin duten laugarren edizioaren aurkezpenean. Lehenengoa, gogoan izan, 2018ko azarotik abendura egin zuten, garai berean bigarrena eta hirugarrena ere, 2020an eta 2022an hurrenez hurren. Logika horri segita, izatez, 2024ko azaroa-abendua artean egitea egokituko zen hurrengo edizioa, laugarrena. Baina ez da hala izango. Izan ere, 2025eko maiatzera atzeratzea erabaki dute, Ahobizi, Belarriprest eta ariguneeen dinamika. "Ediziotik ediziora ariketaren alde teknikoak aztertu, moldatu eta egokitu izan dituzte antolatzaileek, urtetik urtera ariketa egitea eraginkorragoa izateko", azal-

duzuten antolatzaileek aurreko asteko agerraldian. Hausnarke-ta horrek eragin du laugarren Euskaraldiaren data aldaketa.

Hurrengo edizioa, beraz, 2025eko maiatzean egingo da. Udazkenetik udaberrira aldatu dute ekimena. "Izan ere, urte sasoi horretan kaleetan jende gehiago ibili ohi da eta bizitasun sozial handiagoa izaten da kalean. Euskaraldia ariketa soziala den heinean, jendearen arteko interakzioa beharrezkoa da, eta eguraldiak eta aldarteak laguntzen du horretan". Ariketa hau ikusgarri egin eta ahalbideratzen duen txapa ere are ikusgarriagoa egingo da urte garai horretan.

## "Sakontzeko aukera"

2025eko maiatzaren 15ean hasi eta 25era arte luzatuko da euskararen erabilera sustatzea xede

nagusi duen ekimena, eraginkorragoa izateko, Euskaraldiko koordinazio mahaiko kideek Gipuzkoako hiriburuko Tabakalera aditzera eman zuten. Hartara, gainera, Korrika urtearekin ez da egokituko eta bi ekimenak "urtez urte txandakatzen" joango dira. Izan ere, Euskaraldiko koordinazio mahaiko esanetan, "bikintza erraldoi horiei esker euskararen gaia Euskal Herri osoko kaleetara zabaltzea lortu baita".

**"UDABERRIAN JENDE GEHIAGO DABIL KALEAN ETA BIZITASUN SOZIAL HANDIAGOA IZATEN DA"**

Datorren Euskaraldiko ha-maika egunak udaberrian izanda, "uste dugu, 11 egun izateak ariketa modu eraginkorragoan egitea ahalbideratuko duela, sakonago egiteko aukera emango du. Bi asteberu hartuko ditu, eta horrek herrietan mugimendua sortzeko aukera emango du".

Ekimen honek utzitako arrastoaz eginiko ikerketako datu eta jarraibideetan oinarritu dute erabaki hau, baina baita eragileek eta norbanakoek eginiko ekarpenetan ere.

## Erronkak

Administrazio-erakunde guztiak, euskalgintzako erakundeak eta askotariko entitate eta elkarten arteko lankidetzak sustatzen du Euskaraldiak. "Gobernantza-eredu berritzailea eta interesgarria ekarri du", nabarmendu dute. Aurrera begira, eredu horretan sakondu nahi dute, ezinbestekotzat jotzen baitute "euskararen biziberritze-prozesuak aurrera egin dezan".

Tartean, auzo nahiz herrieta-ko "dinamizazio eta aktibazio sozial zabala" gaketzat jo dute Euskaraldia eraginkorra izateko, baita bere bueltan biltzen duen "adostasun handia". "Bateratasun horrek indar biderkatzailea du, eta euskararengandik urrun dagoen asko erakartzeko balio du; horrek ere, hein handi batean, egiten du eraginkor ariketa, indar metaketa, gutxinaka aurrera pausoak ematea, hizkuntza-ohiturak denen laguntzarekin aldatzea".

## Arrasto nabaria

Aurreko hiru edizioek hala erakutsi dutela gogorarazi dute. "Parte hartzaileen artean euskaraz zekitenekin uneoro euskaraz egiten zutenak % 63,9 ziren ariketaren aurretik, eta % 78,9 ariketa amaitu ondoren, ariketan zehar proportzioa % 85,9 iritsi zelarik". Horregatik, ekimena hau gehiagotan egiteko beharra azpimarratu dute aldaketa horietan sakontzen segitzeko.

# Jendetsua eta partehartzailea izan da aurtengoa

Jendetza batu zen igandean NOAUA! Kultur Elkarateak frontoian antolatutako San Tomas azokan. Babarrun lehiaketan, 10 ekoizle aurkeztu ziren eta sagardoarenean, 24. Epaimahaikideek ez zuten lan erraza izan.

Ixabel Agirresarobek aurkeztutako lehiaketan zuten beste behin ere, eta gogotsu iragarri zuen San Tomas azokaren –"edo Neguko Azokaren"– irekiera. Ordurako jende ugari zebilen frontoian. Bazen zer ikusi, zer dastatu eta zer erosi. Tartean, babarrun eta sagardo lehiaketetara aurkeztutako aleak. Ostolaza eta Pujana trikitilariak girotu zuten azoka.

Eguerdiko 12:00etan hasi ziren sagardo eta babarrun lehiaketak. Epaileak jo eta su aritu ziren lanean. Postuetan ere mugimendu polita zegoen ordurako. Jateko eta edateko eskaintza zabala izan zen: gaztain erreak, taloak, sagardoa dastatzeko mahaiak, Udarregi ikastolako ikasleen gozoak...

Jakien artean, aurten berrikuntza nagusi bat; Eskura Elikadura eta Dietetika aholkularitza zerbitzukoek babarruna osagai zuten zenbait jaki eder askoak prestatu eta zerbitzatu zituzten, haien gunea ezagutzera ematearekin batera.

## Talogileen azken ahalegina

Talo zaletuez inguratua eta eskubete lan zutela agurtu dute Usurbilgo egungo talogileen taldeak urteotako ibilbidea. Egunotan iragarri moduan, NOAUA! Kultur Elkarateak antolatutako azoka hau ez zuten haien azken lanegina.

## Pinaburuekin Gabonetako apaingarriak egiten

Helduentzako ez ezik, gazte-txoentzako ekitaldiak ere antolatzen dira San Tomas azokan. Susana Martinek Sutegiko aterpean eskaini zuen tailerrak gazte askoren arreta piztu zuen. Pinaburuekin gabonetako apaingarriak egiten aritu ziren.

## Lehiaketak, azokako gatza eta piperra

Babarrun eta sagardo lehiaketak dira San Tomas azokako gatza eta piperra. Aurtengoan, epaimahaiak lanak izan ditu sagardo onena hautatzeko garaian. Dastaketa luzatu behar izan zuten irabazlearen izena



Lehiaketara aurkezturiko sagardoa dastatu ahal izan zuten.

argitu ahal izateko. Gutxigatik izan bazen ere, Ibindos baserriak eskuratu zuen lehen saria. Babarrun lehiaketan aldiz, Juan Carlos Balerdik aurkeztutakoa izan zen epaimahaiaren balorazio altuena jaso zuena.

## Babarrun lehiaketako sarituak

1. Juan Carlos Balerdi, 150 euro eta txapela.
2. Antonio Eizagirre (Aldapa baserria), 90 euro eta trofeoa.
3. Idoia Orbegozo (Galdagorri baserria), 50 euro.

## Sagardo lehiaketako sarituak

1. Mikel Errekondo (Ibindos baserria), 150 euro eta txapela.

## BABARRUNA OSAGAI ZUTEN JAKIAK ZERBITZATU ZITUEN ESKURAK

2. Kupela taldea (Anburu baserria), 90 euro eta trofeoa.
3. Izeta anaiak, 50 euro.

## Laguntzaile ugari

Hauek izan ziren epaile lanetan aritu ziren lagunak. Sagardo txapelketari dagokionean, Peña Pagola elkarteko kide Imanol Ikutza, Urdaira sagardotegiko Ane Azkonobieta, Aitzaga elkarteko Beñat Larrañaga eta Xabier Mikel Errekondo, Atxegaldeko Mahaspildegiko elkarteko kide Aingeru Orbegozo eta Sagardo Eguna-ren Lagunak taldeko ordezkari Mikel Arrillaga.

Babarrun txapelketari dagokionean, Tolosako babarrun elkarteko Xabier Goikoetxea ordezkaria eta herrikide Joxe Mari Iribar.

Sagardoa epaimahaiari zerbitzatu lanetan, urte luze egin duten moduan, aurten ere Xabier Soroa eta Kerman Errekondo aritu dira.



Ibindos baserria nagusitu zen sagardo lehiaketan.



Juan Carlos Balerdiren babarrunak eraman zuen lehen saria.



NOAUA

## Gabonetako apaingarriak egiten, Susana Martinen gidaritzapean

Helduentzako ez ezik, gaztetxoentzako ekitaldiak ere antolatzen dira San Tomas azokan. Susana Martinek Sutegiko aterpean eskaini zuen tailerrak gazte askoren arreta piztu zuen. Pinaburuekin gabonetako apaingarriak egiten aritu ziren. Partehar-tzaile bakoitzak bere artelanarekin etxeratzeko aukera izan zuen.



NOAUA

## Udarregi ikastolako eta Aginagako eskolako ikasleak, gozoa saltzen

Frontoiko postuetan, herriko talde ugari zeuden baina gero eta nabarmenagoa da kanpotik etorritako artisau eta saltzaileen presentzia San Tomas azokan. Etxekoen artean, bi ikastetxe; Udarregi ikastola eta Aginagako eskola, biek ala biek jarritako postuetan ikasturte amaierako bidaiarako laguntza biltzen aritu ziren.



Lehiaketara 10 babarrun ekoizle aurkeztu ziren.



Gaztain erretzaileek ez zuten kale egin.



Ostolaza eta Pujana trikitilariak girotu zuten San Tomas azoka.



Nafartarrak-en postuetan Zuberoako ikastolen aldeko otarrak eskura zitezkeen.



# ALdea dago!

Erreparatu ongi bi irudiei, eta markatu bien artean dauden aldeak. 20 dira guztira.

## Sudokua

A			E
		R	
	E		
O			

Bete hutsuneak, EROA hitza osatzen duten hizkiak (E, R, O, eta A) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.


## Gabonetako dominoa

Osatu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan.




## Itzala

Zein da izeiaren itzal zuzena?



# Handienetik txikienera

Ordena itzazu iratxo hauek handienetik txikienera, eta 1etik 9ra hurrenez hurren. Bide batez, margo itzazu denak.




## Irudi engainagarriak

Zenbatuta dauden zatitxo hauen artetik erdiak iruditik hartuta daude, eta beste erdiak engainagarriak dira. Bereiz itzazu.

## Labirintoa

Katagorriak Maridomingirenganaino iritsi behar du, fruitu asko baititu saskian. Sekuentziari jarraituz, mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean. Bide batez, lauki bakoitzeko hizkiak agertu ahala idatzi behean, eta esaera zahar bat osatuko duzu.





Garazi Aizpuruak gidatu zuen abenduaren 14ko solasaldi filosofikoa.



Trantsizio ekosozialari lotutako misioa definitzeko lanketa jendetsua hasi dute.



Sortzaile ezagunek literatura emanaldi musikatu eskaini zuten Sutegin.



Usurbilen grabaturiko "Pause" laburmetraia estreinatu zuten Sutegin.



AztarriTruk 2. eskuko azokarako materiala biltzen aritu da gazte mugimendua.



Antolatu dituen topaketetan parte hartzeko deia egin du gazte mugimenduak.



80 eta 90 urteko aginagarrak omendu zituen Arratek azaroa amaieran.



Mariatxiek eta jan-edanarekin giroturiko omenaldia izan zen Aginagakoa.





"Bihotz dantza begietan" ikuskizuna plazaratu zuen Orbeldik larunbatean.



X. Lizadiren "Bihotzbegietan" liburuko poesia tartekatuz emanaldian.



Gabon giroan murgilarazi zuten Santuenea larunbateko azokak.



Postuak, tailerrak, musika eta jan-edana izan zuten Santueneko gabon festan.



Aginagan talo janarekin eman zieten ongi etorria eguberriei.



Kaleei bizitasuna eta argitasuna emateko, gabonak piztu ditu Hurbilagok.



Olentzerentzako gutunak biltzeko postontziok dituzue eskura egunotan.



Belaunaldiarteko topaketa egin zuten Zumarten, gabonei harrera egiteko.



Lucia Ucar eta Igor Gorriti, Eskura elikadura eta dietetika aholkularitza zerbitzuko arduradunak. NOAUA!

# 'Eskura' elikadura eta dietetika aholkularitza, bigarren faserantz

**LUCIA UCAR ETA IGOR GORRITI** ESKURA AHOALKULARITZA ZERBITZUKO ARDURADUNAK

Urte berriarekin batera, eskaintza berri eta zabalduko dute Zubiarenean kalean kontsulta duen Eskura elikadura eta dietetika aholkularitza zerbitzuko arduradunek.

"Bizitza osasuntsuago batera" bideratzen dihardute Eskura Elikadura eta Dietetika aholkularitza zerbitzua eskaintzen diharduten Lucia Ucarrek eta Igor Gorritik. "Gure kontsultan, zure beharrak identifikatu ondoren %100 neurritza diseinatutako plana egiten dugu murrizketak alde batera utzita, tresna egokien bidez zure helburura iritsi zaitezten". Igor, urte luzez ostalaritzan eta irakaskuntzan jardun ostean, "dietetikako goi mailako ikasketak burutu eta Nutrizio kliniko eta Obesitatean" espezializatua dago. Lucia "Goi mailako Dietetika ikasketak burutu ondoren, Nutrizio klinikoan" espezializatu zen, giza

elikadurari lotutako hainbat ikastaro ere eginak ditu.

## Zerri erantzun nahi dio zuen aholkularitza zerbitzuak?

**Igor Gorriti:** Herrian ez zegoen halako zerbitzurik. Eskura aholkularitza zerbitzura diagnosi batekin etorri behar da eta diagnosi horren gainean gure dietoterapia bat planteatzen dugu, baliabideak jartzen ditugu. Orain arte, elikadura eta dietetika aholkularitza zerbitzua eskaini dugu. Orain, bigarren fase batean sartzerako goaz; dietoterapian. Ikastaro teoriko-praktikoak eskainiko ditugu urte berriarekin batera, sukaldaritzarekin uztartuta. Betiko osagaiekin, betiko erre-

zetak abiapuntu hartuta, ukitu ezberdinak emango dizkiegu, ez aspertzeko. Osasunean aldaketa positiboa eragitea da gure helburua. Hogeitik gora urte sukaldaritzan aritu eta gero, gogoia nuen halako proiektu bat martxan jartzeko. Usurbilek baratzegintzarekin eta tokiko produktuen ekoiz-

## IGOR GORRITI: "OSASUNEAN ALDAKETA POSITIBOA ERAGITEA DA GURE HELBURUA"

penarekin duen lotura estuta baliatuta, hori landu behar dugu.

## Dietaren kontzeptua irauli nahi duzue. Zer ikuspuntu duzue zuek?

**I.G.:** Dieta osasuntsua edo kaltegarria izan daiteke, edo zer gauza. Gurea, nahi duzuna kontsumitu, helburu positiboak lortuta.

**Lucia Ucar:** Ideia da gure ez esatea zer jan behar duten edo zer ez, pauta batzuk ematea baizik, eta beraiek izatea aukera hori egiten dutenak. Ez izatea gurekin posaturako zer bait.

## Pazientearen beharrak, ohiturak kontuan izanda ezta?

**L.U.:** Bai. Norberak duen bizimoduaren arabera (lana, elikatzeko ohiturak...), bakoitzak behar ezberdinak ditu.

## Non abiatzen da lanketa honen abiapuntua?

**I.G.:** Dieta grekeratik datorren kontzeptua da, bizitza estiloa esan nahi du. Gure lanketa kontzeptu horretatik abiatzen da. Bizitza estilo baten bila goaz, norbere ohitura eta beharretatik abiatuta. Norbera inguru batean txertatua dago. Horregatik, pertsona bati dieta bat jartzen diogun unean, beti esaten diogu, inguruarekin hitz egiteko, erabaki bat hartu duenez horren kontzientzia izan behar dutela. Izan ere, elkarlan bat da hau; gure geure parte jartzen dugu, pazienteek haiena baina inguruak ere lagundu behar du.

## Prozesu horretan mugarririk jarritzea lagungarria izango da?

**I.G.:** Lehenbizi helburua zein den argitu behar da. Abiapuntua da bakoitzaren helburua aztertzea; zer eta zertarako nahi duen, edertasun kanonak albo batean utzita.

**L.U.:** Saiatzen gara aztertzen zer zailtasun dituen, eta zailtasun horiek lantzen goaz. Adibide bat jartzeagatik, pertsona bati barazkiak jatea asko kostatzen bazaio, ez duelako ohiturarik edo ez dituelako

→ gustuko, errezeta desberdinekin jolasten hasten gara; nola joan sartzen barazki horiek gutxinaka, ohitzen joateko, pixkanaka eta pausoz pauso. Egun batetik bestera gure dieta osoa aldatzen hasten bagara, hori ez da jasangarria izango. Ideia da aldaketak pixkanaka txertatzen joatea.

**I.G.:** Bizitza osoan ohitura batzuk izanda, ezin da planteatu bi hilabeteetan norbere ohiturak aldatzea. Horrek ez du zentzurik. Aldaketak azkar izatea nahi izaten dugu; adibidez, pisua galdu nahi izaten dute askok, eta hala egiten dute zenbat gantz eta gihar galdu duten kontuan izan gabe. Askotan gertatzen da dieta horiekin gantza ez dela galtzen baina muskulua edo ura bai. Dieta uztean berreskuratzen duzu ura, gantzak, baina muskulatura galtzen da. Hasieran baino okerrago, beraz.

**Pisua galtzea izaten da halakoe-tan lehentasuna. Gai honetan pedagogia lana egitea egokitu-ko zaizue ezta?**

**L.U.:** Askotan datoz pisua galdu nahian. Pisatu aurretik beti haiekin hitz egiten dugu, nola sentitzen diren. Esaten dizute, pisua galduta oso ondo sentitzen direla, indartsuago, energia gehiagorekin, bolu-mena murriztu dutela, baina kilo erdia jaitsi dutela soilik eta "zer gaizki" esaten dute. Baina prozesuko aldaketa horiek guztiak balore gehiago dute, pisua galtzeak baino. Horregatik, ondo doazela kontzientziatzea batzuetan kostatzen da.

**Ondo egotea beste parametro batzuen arabera neurtu behar genuke beraz?**

**I.G.:** Pisua neurtzeko ohiko baliabidea etxeko baskula da. Baina profesional baten balore guztiak ez dituzte neurtzen. Pisua erreferentzia bat da, baina baita muskuluen pisua, gantzena, urarena, hezurrena... Guretzat garrantzia



Eskurak gabonetako promozioa aurkeztu zuen San Tomas azokan. NOAUA!

gehiago dute azken horiek. Internetek kalte handia egin du gaiotan.

**L.U.:** Batek zerbaite esaten du, besteak kontrakoa. Azkenean, ez dakigu zer egin. Informazio gehiago izatea azkenean desinformazioa da.

**Hona datozen pazienteei zeintzuk dira kezkatzen dizkieten gaiak?**

**L.U.:** Gehienbat pisuagatik etortzen dira.

**I.G.:** Badaude batzuk elikadura ohitura txarregatik datozenak, hori zuzendu nahi duelako. Edo ez dakigu zer den txukun jakitea. Agian txukun jaten ari zara eta ez zara horretaz jabetu. Edo alderantziz. Zaborra jaten ari zara eta uste duzu ondo jaten ari zarela.

**Erreferentzia egokiak falta zaizkigu ezta?**

**"ORAIN ARTE INDIBIDUALKI EGIN DUGUN LANKETA ORAIN TALDEAN BIDERATU NAHI DUGU"**

**L.U.:** Azkenean, elikadura industria marketingean oso ona da. Sinestarazten digute edo zer gozoki osasuntsua dela.

**I.G.:** Frutak eta barazkiak ekoizten dituztenek ez dute marketing talde bat. Ez dute halako baliabiderik, horrek ez du dirurik ematen. Zuk erosten duzun osagai bat ez bada ikusten zer den, adi. Zerbaite ez dago ondo.

**Bigarren fase batean sartzera doa zuen proiektua.**

**I.G.:** Eskura duela bi urte abiarazi genuen. Orain arte indibidualki egin dugun lanketa orain taldean bideratu nahi dugu. Batetik, sukaldaritza tailerrak eskainiko ditugu. Nutrizioaren inguruko gai bat landuko da egun ezberdinetan eta gero dietoterapien, sukaldetan arituko gara. Betiko osagaiekin betiko errezetak egingo ditugu, pixka bat aldatuta.

**"HAINBAT BONU ESKURAGARRI JARRI DITUGU ASTEOTAN, HITZALDI ETA TAILERRETARAKO"**

Gaur egun, sukaldaritza asko aldatu da. Eskaintza zabalagoa dago. Badaude osagai hainbat ez dakigunak osasuntsuak diren edo ez. Mito horiek hautsi eta geure baliabideak sortzera goaz, dietoterapiaren bidez bizimodu osasuntsua izateko. 16 urtetik gorakoentzat da.

**Gabonetarako kanpaina iragarri duzue?**

**I.G.:** Hainbat bonu eskuragarrri jarri ditugu, urtarrilaren 15era arte, gerora antolatu ditugun hitzaldi eta tailerretarako. Izen-ematearen arabera osatuko dira taldeak eta finkatuko ditugu helburuak. Apuntatzerakoan, galdetegi bat helaraziko dugu. Horko erantzunaren arabera saioak antolatuko ditugu. Hauek dira eskura ditugun bonuak:

- 'Nutrizio plana' (160 euro): 4 kontsulta, hitzaldia, sukaldaritza tailerra.
- 'Oparitu osasuna' (60 euro): hitzaldia, sukaldaritza tailerra. Nori zuzendua: 16 urtetik gorakoentzat.

**Informazio gehiagorako:**  
 eskuradietetika.com  
 Zubiaurrenea 1, 1c  
 688 843 696  
 eskuradietetika@gmail.com



Eguberrietako etenaren ondoren, utarrilaren 15ean ekingo diote ikasturte berriari.

## Kantu Taldeak giro ederrean agurtu zuen ikasturtea

Iragan ostiralean Patrienean eginiko kantu-afariaren bueltan, giro goxoan agurtu zuen ikasturtea Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak.

Asteotako etenaldiaren ostean, urtarrilaren 15ean ekingo diote ikasturte berriari, arratsaldeko 18:00etan ikastolako musika gelan, Jaione Eskude-

roren gidaritzapean. Bilgune-tik bertatik jakinarazi dutenez, izen-ematea lehen entsegu saio horretan bideratuko dute. "Beti bezala, kantu zaharrak

eta berriak errepasatzea eta ikastea izango da entseguetako helburu nagusia, urteko tradiziozko pasadizoetan parte hartuz, kantu-afariak antolatuz, Sutegin kontzertu ekimenen bat plazaratuz, herrian zehar hileroko kantu jirak ospatuz eta abar. Azken finean, kantatzeko ohitura hauspotzea, transmisio kultural bat sustatzea euskaratik eta euskaraz, lagunarteko harremanak bultzatuz sortzen den giro ederraz gozatzea eta beste herrietako kantuzaleekin adiskidetasun bat jorratzea kantu-saio-trukaketak bultzatuz".

## 15 urteko espetxe zigorra

Auzi hau epaitu duen epai-mahaiak azaroaren 14an erruduntzat jo ostean, hamabost urteko espetxe zigorra eta beste zazpi urteko zaintzapeko askatasuna ezarri diote 2022ko urtarrilean Andatzen gizonezko bat hiltzeaz akusatua zegoenari, hiru urteko espetxealdia eta beste hiru urteko zaintzapeko askatasuna garai hartan bikotekide zuenari hilketan gaizkide izatea egotzita. Biek ala biek 150.000 euroko kalte ordaina eman beharko diote biktimaren gurasoei. Azkenik, bikotekide ohiaren pisukidea-ri hilabete eta erdiko espetxealdia ezarri diote, delitua estaltzeagatik. Denei, droga mendekotasunari lotutako neurri aringarria aplikatu diete.

### Hilketatik hilabetera aurkitu zuten gorpua

Gogoan izan, gizonezko baten gorpua aurkitu zuten 2022ko otsailaren 27an Andatzen, indarkeria zantzuekin. Hilabete lehenago gertatu zen, ordea, hilketa. Andatzen utzi zuten aurkitua ez izateko asmoz. Ertzaintzak abiarazitako ikerketaren harira aipatu hiru pertsonak atxilotu zituen.

## "Gazte, arraro, errebelde" Iñurri (Min) biziaren aurkako podcastaren aurkezpena

Abenduaren 22rako ekitaldia deitu du Iñurri (Min) Biziaren aurkako elkarteak 19:00etan Sutegiko auditorioan; "Gazte, arraro, errebelde" izeneko podcast-a aurkeztuko dute. "(Min) bizi! Inurriren podcast-a, Aintzane Artola, Olatz Mercader eta inurritegiarekin. Bizi? Minbizi! ta hil arte bizi! Zelulak dituzu? Ugaltzen ari zaizkizu? Podcast hau zuretzako izan daiteke! Zatoz inurritegira!".



Ostiral honetan, 19:00etan Sutegin.

Azaldu dutenez, gainera, "BMJ Oncology aldizkarian argitaratu berri den ikerketa baten arabera, 50 urtetik behetako artean tumoreen mundu mailako intzidentzia % 79 handitu da 1990etik. Gainera gazteek ez daukate inongo espaziorik beraien bizipenak partekatzeke. Horregatik, ezjakintasunaren arrakalak itxi nahian hain ohikoa ez den minbizi izateari buruz, eta gazte izateari buruz hitz egingo da atal honetan". Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dituzue.

## Bi atxilotu Zubietan, kobrezko materiala lapurtzea egotzita

15.000 euro inguruko balioa duten kobrezko bobinak lapurtzea egotzita, Ertzaintzak bi gizonezko atxilotu zituen aurreko igandean Zubietan.

Ertzaintzatik ohar bidez azaldu zuten, "obraren perimetroaren barruan, hesi batekin babestuta, furgoneta bat zegoen irekita, kobrezko bobina batzuekin eta tresnekin. Inplikatuak aitortu zuten, ez zen bere jabetzako, baina utzi egin ziotela".



Jokabide egokiak sustatu eta kantxa barruko nahiz kanpoko jarrera desegokiak alboratzeko kanpaina bat egin zuten larunbatean.

## Kirolean ere errespetuz jarduteko

Herriz herri dabilta azken aldian, eta iragan larunbatean Haraneren eta Usurbil Futbol Taldearen txanda izan zen. Kirol arloan jokabide egokiak sustatu eta kantxa barruko

nahiz kanpoko jarrera desegokiak alboratzeko DVren sentsibilizazio kanpainarekin bat egin zuten iragan larunbatean Kalezarko futbol zelailan atera zuten ondoko

talde argazkiarekin. Sare sozialetan ezaguna den keinua eginez, hatz lodia altxata "kirolean errespetuz" aldarria duen kanpaina atsegin dutela adierazi nahi izan zuten modu horretan.

Infantil mailako mutilek eta kadete mailako neskek jokatzekoak zituzten neurketen arteko atsedendia baliatu zuten talde argazki hau ateratzeko.

## Mirotzen omeneko infantil mailako 14. Eskubaloi Txapelketa

Abenduaren 29an, eskubaloi jokalariek gaztetxoentzako topagunea izango da Oiardo kiroldegia.

### Puntako sei talde

Eskubaloiaren ibilbide luzea osatu duten sei talde elkartuko dira: Usurbil K.E., Zarautz Z.K.E., Tolosa C.F., Pulpo E.K., Anaitasuna eta Basauri E.T.

Partidak goizean goizetik jokatuko dira eta irabazleen izenak arratsalde partean eza gutuko ditugu.

### Infantil mutilak:

- 09:00 Usurbil K.E. A-Usurbil K.E. B
- 10:00 Amenazar Z.K.E.-Pulpo E.K.
- 11:00 Usurbil K.E. A-Tolosa C.F.
- 12:00 Usurbil K.E. B-Anaitasuna
- 13:00 Tolosa C.F.-Pulpo E.K.
- 14:00 Amenabar Z.K.E.-Anaitasuna
- 16:00 5. eta 6. postuak.
- 17:00 3. eta 4. postuak.
- 18:00 Finala.

### Infantil neskek:

- 09:30 Usurbil K.E.-Tolosa C.F.
  - 10:30 Aiala Z.K.E.-Pulpo E.K.
  - 11:30 Usurbil K.E.-Anaitasuna
  - 12:30 Aiala Z.K.E.-Basauri E.T.
  - 13:30 Tolosa C.F.-Pulpo E.K.
  - 14:30 Basauri E.T.-Anaitasuna
  - 16:30 5. eta 6. postuak.
  - 17:30 3. eta 4. postuak.
  - 18:30 Finala.
  - 20:00 Sari banaketa.
- Antolatzaileak: Usurbil K.E., Udala, Euskal Eskubaloi Federazioa.

## Futbol partidak

### Abenduak 22, ostirala

- 11:30 Infantil neskek: Usurbil FT-Hondarribia FE

### Abenduak 23, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil FT-Lengokoak SD B
- 12:00 Gorengoan neskek: Usurbil FT-Hondarribia FE

- 16:00 Gorengoan mutilak: Usurbil FT-Alleru KE

### Abenduak 26, asteartea

- 10:00 Lehen urteko alebinen mailako Harane Txapelketa 2023. Parte hartzaileak: Añorga KKE, Mundarro KE, Billa-bona FKE, Usurbil FT, Orio-

ko FT, Lazkao KE, CD Vasconia.

### Haranetik kanpo

#### Abenduak 23, larunbata

- 16:45 Infantil mutilak: Zarautz KE B-Usurbil FT B
- 19:15 Gorengoan jubenilak: Mundaiz SCD-Usurbil FT

## Pagazpe garaile, munduko pilota egokituko txapelketan

Usurbilgo kirol elkartearen abenduaren 16an Iruñeko Labriten jokaturiko pilota egokituko munduko hirugarren txapelketako garailea dugu. Zehazkiago esanda, elkarte honetako Aingeru Semperena eta Edorta De Antak txapelketa honen finala irabazi zieten

(10-7, 4-10, 5-4) hain zuzen, elkarteko kide ere baden Beñat Lizaso usurbildarrari eta Manu Quesadari. "Zorionak Aingeru, munduko txapeldun!", adierazi diote Pagazpetik. Beñat Lizaso usurbildarrak, aipatu moduan, txapeldunorde amaitu du lehiaketa.



Iruñeko Labriten jokatu zen pilota egokituko mundu txapelketa.



Txiskeroak musika taldeko kideak. Abenduaren 26an kontzertuan ikusi eta entzun ahalko ditugu. NOAUA!

# "Abenduaren 26an gure aurreneko abestia joko dugu estreinakoz"

## TXISKEROAK MUSIKA TALDEA

Aritz Urkijok (baxua), Alain Harreguyk (abeslaria), Enaitz Manterolak (bateria), Axel Floresek (kitarra) eta Axular Rekondok (kitarra) gazte topaketen amaieran joko dute.

Usurbilgo gazte mugimenduak antolaturiko egunotako topaketen amaieran, abenduaren 26an, 20:00etan hasita Aitzaga atarian kontzertua eskainiko du Txiskeroak talde berriak, Anuk eta Elenerekin batera.

### Txiskeroak kale giroa piztera dator?

Iaz, lokalaren gaiarekin udalaxean zain ginela, izen bat bilatzen hasi eta pentsatu genuen hiztegia hartu eta ikusi genuen lehen hitza hartzea; metxeroa atera zen, eta hortik hautatu genuen txiskeroak.

### Huraxe izan zen taldearen abiapuntua?

Afari batean bururatu zitzaigun taldea osatzea. Gure aurreneko entsegu saioak garaje batean izan ziren.

### Musikalki non koka dezakezue zuen taldea?

Rock, metal estiloa jorratzen dugu. Iaz, Bertsio Gauerako prestatzen hasi ginen. Gure kantak egiten ari gara orain. Abenduaren 26an gure aurreneko abestia joko dugu estreinakoz, pozgarria izango da guretzat. Gogo handia jarri dugu sorkuntza lanetan. Bospasei bertsio joko ditugu, azkenekoa izango da gure kanta.

### Bertsio Gauak harrera ederra izaten du jaietan?

Oso polita izan zen aurtengoa. Euri zaparrada egin arren, jendez betea egon zen. Oso giro polita zegoen, jendea gogotsu eta gu ere bai. Usurbilen talde berriek ezagutzera emateko duten ekitaldi handiena da Bertsio Gaua.

### Zer modutan eragin dio taldeari Haranen lokala izateak?

Beti da lagungarria, akustika aldetik garajearekin alderatu-

## "SORTZEN ETA IDEIA BERRIAK PENTSATZEN SEGI NAHI DUGU"

ta bada aldea. Gainera, Haranen beste taldeek egin diguten harrera osoa ona da, entseguetarako baliabideak partekatzen ditugu. Halere, toki bat izatea baino askoz garrantzitsuagoa da denok elkartzeko ordutegi finkoa izatea.

### Zer mugimendu duzue Haranen?

Hamabi bat talde edo ariko gara entseatzeko. Taldeak asko ari dira ugaritzen, askok hona etorri nahi dute entseatzera, guk nahi genuen moduan. Usurbil arnagune bat da, kultura musikal handia dago. Jendea zerbait ezberdina egiteko gogoz dago.

### Zer ekarpen egiten dizue musika taldeko kide izateak?

Egonezin artistikoak ditugu, gure kasuan musikalak. Musika talde batek horiei bide ematea ahalbidetzen digu.

### Abesti gehiago sortuak dituzue?

Bakarra sortu dugu, baina ideia piloak ditugu. Horiek bilduta kantak sortzen joatea da asmoa. Datorren kontzertua tarteko, kanten sorkuntza eten dugu. Gero helduko diogu berriz lan horri.

### Zer adierazi nahi duzue musikaren bidez?

Gehienbat gizarteari buruz hitz egiten dugu, kritika sozial asko egiten dugu. Baladaren bat edo beste sortzea ere pentsatzen ari gara.

### Hilaren 26an zer da ikusi eta entzungo duguna?

Estilo ezberdineko bertsio ezagunak joko ditugu. Animate! Gazte topaketen jotzeko aukera eskaintzea motibagarria izan da, ez genuen espero.

### Zer norabidetan segi nahi duzue?

Sortzen eta ideia berriak pentsatzen seginahi dugu. Tartean, kontzerturik edo proiekturen bat suertatzen bada, horri heltzea. Gogorik ez galtzea. Helburua argi izatea, eta horretarako lan eta lan egitea, presarik gabe.



Usurbilgo talogileen egungo taldea, jo eta su lanean abenduaren 17ko San Tomas azokan. NOAUA!

## "Taldeak jarraipenik ez izatea penagarria litzateke"

### USURBILGO TALOGILEAK

Inoiz ez dute eskari faltarik izaten, baina abenduaren 17koa itzela izan zen. Zuten guztia, ohi bezala onena eman zuten Usurbilgo talogileek San Tomas azokan. Postua ireki zuten unetik bertatik hasi zitzaizkien talo eske. Eguerdie partean, ordea, arindu ezin izan zuten ilara luze askoa osatu zitzaizen postuaren bueltan.

Talo zaletuez inguratua eta eskubete lan zutela agurtu zuten Usurbilgo egungo talogileen taldeak urteotako ibilbidea. Egunotan iragarri moduan, NOAUA! Kultur Elkarteak antolatutako azoka huraxe

zuten haien azken laneguna. Amaitutzat eman dute talogileen bilgunearen baitan egin duten jarduna.

#### Urtean lau azoka

Erreleborako deia egin dute hedabide honen bidez egunotan. Egin beharrekoaren berri azaldu digute. "Bizpahiru aste lehenago materiala eskatzen dugu; irina, txistorra... Horrez gain, guk dugun materiala nola dagoen begiratu behar izaten da. Gero, egunean bertan, postua muntatu eta desmuntatu beharko litzateke" eta, tartean, taloak sukaldatu eta saldu. Urtean lautan jartzen

dute postua: maiatzeko Sagardo Egunean, azaroko Artisanu Azokan eta Erle Egunean eta abenduko San Tomas azokan. Alderik bada hitzordu batzuen eta besteen artean izaten duten lan erritmoan. "Sagardo Egunean askoz gehiago egiten da baina askoz zabalagoa da denbora tartea. Baina beste azoketan gertatzen da, 12:30-14:00 ordu eta erdi horretan atera behar duzu lan guztia. Ilara ikusten duzu, zuk ere nahi duzu eman eta ahal dena egiten dugu".

**Lekukoa hartuko dutenen bila** 2015ean hartu zuen egungo taldeak aurrekoen lekukoa, Usurbilen Kilometroak jaialdia ospatu zen urtean hain zuzen.

### "HERRITAR TALDEAK USURBILLEN SEGIDA IZATEA NAHI DUTE"

Ordutik lehen aipaturiko urteko lau azoketan aritu izan dira lanean; baita bestelako ekimen berezietan ere, hala nola, Euskaraldiari lotutakoetan.

Haiek ibilbidea amaitutzat eman ostean, duela zortzi urte jasotako lekukoa hartzeko prest dagoen talderik izan bada orain, baina herritik kanpoak. Pasa den igandera arte lanean jardun duen herritar taldeak Usurbilen bertan segida izatea nahi lukete. "Badakigu kanpotik etorri nahi duten taldeak badaudela, baina Usurbilgo talogileen taldeak jarraipenik ez izatea penagarria litzateke", adierazi diote NOAUA!ri aipatu herri bilgunetik. Izan ere, hamar-kada luzez jardun dute jaki gozo hauek prestatu, saldu eta jasotako laguntza eragile ezberdinetara helarazten. Elkartasun bilgunea izan da, beraz, talogileena.

**Trantsizioan laguntzeko prest** Hurrengo hitzordua, izatez beraz, 2024ko maiatzeko Sagardo Eguna izango litzateke. Ordurako beharko lukete erreleboa. "Norbaizuk ardura hartuko balute, haiei laguntzeko prest egongo ginateke", ohartarazi digute. Hamabost edo hemezortzi laguneko taldea beharrezkoa litzatekeela ohartarazi digute. Eskura duten materiala ere, noski, urteko prest leudeke.

#### Eskertza

Eskerrak helarazi nahi dizkiete haien jarduna amaitutzat eman duten talogileek urte hauetan guztietan "lanean aritu diren guztiei eta Udalari ere bai, emandako laguntza guztiagatik, baita, noski, taloak kontsumitu dituztenei".

**eskura**  
elkadura eta dietetika aholkularitza  
DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
GIZENTASUNA, ELIKADURA  
ETA KOLESTEROL ARAZOAK  
**688 843 696**  
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

**USURBIL DÖNER KEBAB**  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
**943 37 00 08**

Zuen  
publizitatea  
hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.eus



Horma-irudiak herriko toki publikoetan eta hainbat saltokitan ipiniko dituzte.

# Gabonetako gehiegizko kontsumoa aztergai

Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleek gaiaren inguruko horma-irudiak ipini dituzte herriko hainbat tokitan.

Azken asteotan egindako lan-ketaren baitan, ikasleek Egu-berrietan jasotzen diren opa-

rien inguruko galdeketa bat erantzun dute. Emaitzen inguruko ondorioak atera eta

informazio hori horma-iruditan adierazi dute. Horretaz gain, "gaiaren inguruko bertso bat sortu dute eta baita ere ipuin bat gazteleraz. Horma irudia osatzeko ingeleseko eslogan batzuk txertatu dituzte", Udarregitik aditzera eman dutenez. Horma irudiak herriko hainbat lekutan jarri dituzte erakusgai: liburutegian, dendetan...



## Berrikuntzak erregeen kabalgatan

Ziortza gazte elkarteak antolatutako erregeen kabalgatari buruzko egitaraua prest dute. Berrikuntzak iragarri dituzte:

### Urtarrilak 5, ostirala

- 11:00 Eskutitz tailerra eta muralaren irekiera.
  - 11:30 Postariaren etorrera eta jolasak postariarekin.
  - 12:15 Postariari kartak eman.
  - 13:30 Filak itxi.
  - 17:00 San Estebanetik irteera.
  - 19:30 Frontoira iritsiera.
- Antolatzailea: Ziortza.

**ALdea dago!**  
Erreparatu ongi bi irudiei, eta markatu bien artean dauden aldeak. 20 dira guztira.

**Sudokua**

A	R	O	E
E	O	R	A
R	E	A	O
O	A	E	R

Bete hutsuneak, EROA hitza osatzen duten hizkiak (E, R, O, eta A) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

**Gabonetako dominoa**  
Osatu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan.

**Itzala**  
Zein da izeiazen itzal zuzena?

**Handienetik txikienera**

Ordenez itzazu inatxo hauek handienetik txikienera, eta letik 9ra hurrenez hurren. Bide batez, margo itzazu denak.

**Irudi engainagarriak**

Zenbata dauden zatitxo hauen artean erdiak iruditik hartuta daude, eta beste erdiak engainagarriak dira. Berez itzazu.

**Labirintoa**

Katagorriak Maridomingirenganaino iritsi behar du, fruitu asko baititu saskian. Sekuentziari jarraituz, mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera egin, baina ez diagonalean. Bide batez, lauki bakoitzeko hizkiak agertu ahal idatzi behean, eta esatera zahar bat osatuko duzu.

ANTZARAK PASATU, NEGUA ETORRI

Plazan Bazan 14/15 orrialdeetako soluzioak.



## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 670410273.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko herriaren erdialdean. 636601644.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eramane edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez aritzeko prest. 616273785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotoxa izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordu-tegian malgutasuna. 688805307.

## BESTELAKOAK

Azaroaren 2an Errekatxikin bi giltza topatu ditugu. Galdu badituzu Udaltzaintzan utzi ditugu.

Belarritako bat aurkitu genuen kalean, Abenduaren 8aren inguruan. Galdu duenak deitu dezala: 607 168 352.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 21	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 22	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 23	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 25	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteartea, 26	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 27	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Osteguna, 28	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 29	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 30	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 31	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## HILDAKOAK



**Juan Mari Iradi Tolosa**  
Abenduaren 12an hil zen, 69 urterekin.



**Aitziber Ugartemendia Zubeldia**  
Abenduaren 16an hil zen, 45 urterekin.



**Juan Mirabel Martin**  
Abenduaren 11n hil zen, 76 urterekin.



**Martina Teresa Aginagalde Landa**  
Abenduaren 18an hil zen, 77 urterekin.



**Juan Ugarte Zinkunegi**  
Abenduaren 16an hil zen, 91 urterekin

## ZORION AGURRAK



**Zorionak Intza!** Zure 11. urtebetetzean. Izugarri maite zaitugu. Etxekoak.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 22

**USURBIL "Gazte, arraro, errebelde" podcastaren aurkezpena**

(Min) bizi! Inurriren podcast-a, Aintzane Artola, Olatz Mercader eta inurritegiarekin.  
19:00etan Sutegin.

## LARUNBATA 23

**USURBIL Kontsumo ereduari buruzko gazte topaketak: AztarriTruk ekimena**

11:00-14:00 Usurbilgo frontoian.

**AGINAGA Olentzero eta Mari Domingiren etorrera**

18:00 Aginagako Eliza Zaharrear.

## IGANDEA 24

**USURBIL Olentzero eta Mari Domingiren etorrera**

Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira galtzagorri, joaldun, adar-jole eta trikitalarien laguntzarekin.  
18:00 Usurbilgo frontoian.

**USURBIL Kontsumo ereduari buruzko gazte topaketak: kantu-jira herrian barrena**

Kontsumo ereduari buruz antolatutako topaketen baitan, kantu-jira.  
Arratsalde 17:30ean, Dema plazan.



Santuenean, Tragoxkatik abiatuko da kalejira arratsaldeko 18:00etan.

## Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

**Larunbatean, Aginagan**

Larunbatean arratsaldeko 18:00etan ikusiko ditugu Sekaña eta Mitxerkoenea ingurutik behera. Eliza Zaharrear joango dira eta bertan eskariak egiteko aukera izango da.

**Igandean, Usurbilen**

Igande honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira

galtzagorri, joaldun, adar-jole eta trikitalarien laguntzarekin. "Plazan, beraiekin argazkia ateratzeko aukera izango da".

**Santuenean, Tragoxka paretik**

Santuenean ere harrera egingo diote igandean, hilak 24, arratsaldeko 18:00etan. Tragoxka paretik abiatuko den biran parte hartzeko deia egin du auzo elkarteak.

**KzGunea, urtarrilaren 2ra arte itxita**

Ostiral honetan, abenduaren 22an itxiko dute Usurbilgo KzGunea urtarrilaren 2ra arte. Egun horretatik aurrera, urtarrila osoan arratsaldez irekiko dute, 16:00-20:00 artean. Informazio gehiagorako: kzgunea.eus / 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

## Urtarriletik aurrera, kiroldegia eguerdian ere zabalik

Urte berriarekin batera Oiardo kiroldegia zerbitzua indartuko du, eguerdian ez dute itxiko. "Kiroldegiko lizitazioa berritu behar denez, eguerdian irekitzeko aprobetxatuko du Udalak". Hilaren 2tik aurrera, beraz, ordutegi hau izango du Oiardo kiroldegia:

**Urtarriletik ekainera eta irailetik abendura:**

- Lanegunak: 07:00-22:00 (igerilekua 21:45).
- Larunbatak: 09:00-21:30 (igerilekua 21:15).
- Igande eta jai egunak: 09:00-13:30 (igerilekua 13:15).

**Uztailean eta abuztuan:**

- Lanegunak: 07:00-20:15 (igerilekua 20:00).
- Larunbat, igande eta jai egunak: 09:00-13:00 (igerilekua 12:45).

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus


# MARCELO ATEAK



**AURREKONTUA  
ESKATU**  
konpromisorik gabe!!

·ATEAK ·ARMAIRUAK ·PARKET  
·BINILOAK ·TARIMAK ·ZOKALOAK

**USURBIL 609 47 36 79**



## FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24 orduz)**

·BEILATOKI GUZTIAK ·ERRAUSKETAK ·LEKUALDAKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

# noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak,  
agenda, zorion-agurrak,  
eguraldia, aldizkaria online...  
Klik batean den-dena ikusgai zure  
eskuko telefonoan, tablet-ean  
edo ordenagailuan.



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

*Edera gure paisaia  
baita herri giro alai,  
kanpotik dator etsaia.  
Olentzerori zapatak garbi  
ta San Silbestren mahatsak.*

*Kantuan ozen ahotsak  
ta askatasun ametsak  
aurrera beti urratsak!*

*Zubietako Herri Batzarrak*

